



EBAZPENA / RESOLUCION

Expediente nº: 2170/2025

Resolución con número y fecha establecidos al margen Procedimiento: Subvenciones por Concurrencia Competitiva

HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Galdakaoko Udaleko Kultura Arloak azken urteotan antolatu izan du "Galdakao herriko Zaindari Jaien (Santakurtzak) kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa".

Gizarte-Kultur animatzaileak, 2025eko apirilaren 7an, txostena egin du aipatutako jardueraren jarraipena justifikatuz.

Galdakaoko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorrak ezarritako araudien markoan oinarriturik, 2005eko ekainaren 24ko Udalaren Osoko Bilkuran onetsi zen (BAO zk. 172, 2005eko irailaren 9koa), eta 2007ko azaroaren 28an udalbatzak hartutako erabakiz aldatu zen (BAO zk 23, 2008ko otsailaren 1ekoa).

23.3381.226.99 eta 23.3381.480.07 partidetan aurrekontuko diru-izendapenik badago.

Desde el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Galdakao se ha organizado durante los últimos años un "Concurso para la elección del cartel anunciador de las Fiestas Patronales Sta Cruz".

La Animadora Socio-Cultural ha emitido informe de fecha 7 de abril de 2025, en el que se justifica la continuidad de dicha actividad.

La Ordenanza General reguladora de la concesión de Subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos, se aprobó en el Pleno Municipal, celebrado el 24 de junio de 2005 (B.O.B. n° 172, de 9 de septiembre de 2005), y fue modificada por acuerdo plenario el 28 de noviembre de 2007 (B.O.B. n° 23, de 1 de febrero de 2008).

Existe consignación presupuestaria en las partidas n° 23.3381.226.99 y 23.3381.480.07.

Vista la propuesta de resolución PR/2025/1368 de 23 de abril de 2025 fiscalizada favorablemente con observaciones con fecha de 23 de abril de 2025.

RESOLUCIÓN

Lehenengoa.- "2025eko Santakurtzak Udalerriko Zaindari Jaien Kartel Iragarlea aukeratzeko Lehiaketa"ren deialdia onartzea.

Primero.- Aprobar la convocatoria del "Concurso para la elección del cartel anunciador de las Fiestas Patronales Sta. Cruz 2025", en los términos en que viene redactada en documento anexo.





Bigarrena.- 2.100,00 euroko gastua onartzea, "2025eko Santakurtzak Udalerriko Zaindari Jaien Kartel Iragarlea aukeratzeko lehiaketa" ren saritzat.

Hirugarrena.- Deialdiaren testu osorik argitaratzea bai Udaletxeko Ediktuen Oholean bai Udaleko web orrian bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Segundo.- Autorizar el gasto de 2.100,00 € correspondiente a los premios del "Concurso para la elección del cartel anunciador de las Fiestas Patronales Sta. Cruz 2025".

Tercero.- Publicar el texto íntegro de la convocatoria en el Tablón de Edictos de la casa Consistorial y en la página web municipal, y un anuncio de la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia.

DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE





"GALDAKAOKO SANTAKURTZAK 2025"EKO JAIEN KARTEL LEHIAKETA

Lehenengoa.- Deialdiaren helburua

"Santakurtzak 2025" zaindari Jaien kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa norgehiagokako araubidean deitzen da.

Bigarrena.- Parte hartzaileak

- 2.1. Interesaturik dagoen edozein pertsona fisikok parte har dezake lehiaketan.
- 2.2. 2 modalitate ezartzen dira:
 - Haur-gazte modalitatea: 2008 eta 2017 urte artean, biak barne, jaiotako pertsonak
 - Helduen modalitatea: 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiotako pertsonak
- 2.2. Onuradunen izaera izan dezakete diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan eta Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan agindutakoa betetzen dutenak.

Hirugarrena.- Lanak aurkezteko era, lekua eta epea

- 3.1. Lanak Kultura, Gazteria eta Kirol Sailean, Lehendakari Agirreren plaza z/g, 9:00etatik 14:00etara, aurkeztuko dira. Lana aurkezterakoan ziurtagiri bat emango da.
- 3.2. Pertsona bakoitzak gehienez 2 lan aurkez ditzake.
- 3.3. Gaia: Santakurtzak 2025.
- 3.4.- Kolorea eta teknika: librea.
- 3.5.- Neurria: 50 x 70 cm. (ez etzana). Euskarri zurrunaren gain muntatuta egon beharko da.
- 3.6.- Kartelek "GALDAKAOKO SANTAKURTZAK 2025. Irailak 12-21" lema eraman behar dute nahitaez.
- 3.7.- Obrak edo lanak berriak izan behar dira, bestelako lehiaketa batean aurretik saririk jaso ez dutenak ezta aldi berean aurkeztu ez direnak.
- 3.8.- Lanak ezingo dira diskriminatzaileak izan, sexu, genero-identitate edo sexu-orientazioa dela eta. Helburu horrekin, testuetan lengoaia ez sexista erabili beharko da eta irudietan bi sexuen presentzia orekatua bermatu beharko da. Era berean, ez dira inola ere onartuko mota hauetako lanak: pertsonak beren sexu, genero-identitate edo sexu joeraren arabera giza duintasunari dagokionez maila altuagoetan edo baxuagoetan aurkezten dituztenak edo sexu-objektu soil gisa aurkezten dituztenak; genero-estereotipoak sustatzen dituztenak; eta emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo bultzatzen dutenak.
- 3.9.- **Lanen identifikazioa:** lanak lema idatzita eta izenperik gabe aurkeztuko dira. Eta eurekin batera gutunazal itxi baten kanpoan, lanaren lema berbera eta egilearen adina jarrita izan beharko dira. Egilearen ondoko datuak <u>gutun-azal itxian</u> sartuta adierazi behar dira:
 - Datu pertsonalak (egilearen izena, helbidea eta telefonoa).
 - Egilearen NANaren fotokopia, edo hamalau urtetik beherakoa bada, bere nortasuna eta jaiotze-data egiaztatzen dituen beste edozein dokumentu publiko edo ofizial.

Gutun-azal itxi hori Epaimahaiak irekiko du epaia eman ondoren, saritutako pertsonen nortasuna ezagutu ahal izateko.

- 3.10.- Obra aurkezteko epea, aurreko puntuan adierazitako gutun-azal itxiarekin batera, deialdiaren laburpena Bizkaiko aldizkari ofizialean argitaratu den biharamunetik hasi eta 2025eko ekainaren 6an amaituko da, 14:00etan.
- 3.11.- Interesatuek deialdi honen kopia ondoko lekuan eskura dezakete: Kultura, Gazteria eta Kirol Sailean







(Torrezabal Kultur Etxea, Agirre Lehendakariaren plaza, Galdakao) eta udal web orrian www.galdakao.eus.

Laugarrena- Sariak

Ondoko sariak emango dira, 23.3381.480.07 aurrekontu-aplikazioaren gain:

Helduen kategoria:

Lehenengo saria
Bigarren saria
Udalerriko lehenengo sailkatua
1.000,00 €
400,00 €
400,00 €

Sari hauei PFEZaren %19a deskontatuko zaie.

Ondoko sariak emango dira 23.3381.226.99 partidaren kargura:

Haur-gazteen kategoria:

Udalerriko denda batean gastatzeko 100 euroko balioko bonoa, ondoko adin-tartekoen artean:

- 2015 eta 2017 urte artean jaiotakoak, biak barne
- 2011 eta 2014 urte artean jaiotakoak, biak barne
- 2008 eta 2010 urte artean jaiotakoak, biak barne

Bosgarrena.- Epaimahaia

- 5.1. Bost kidez osatutako Epaimahaiari egokituko zaio lehiaketaren epaia ematea, idazkaritza betetzen duen pertsonaz gain. Euretatik epaimahaiburua udal ordezkari bat izango da eta epaimahaikideak, jai-batzordekide bi, herriko artista kolektiboko beste bat eta diseinua, komunikazioa eta arte plastikoetako profesional bat izango dira. Idazkaria udal funtzionario bat izango da.
- 5.2. Epaimahaiko kideak aukeratzerakoan, gaitasuna, eskuduntza eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da. Horretarako, ordezkaritza orekatutzat jotzen da, lau kidetik gorako epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkaritza izatea. Gainerakoan, bi sexuak ordezkatuta daudenean.
- 5.3. Epaimahaikideak Alkate Dekretu bidez izendatuko dira, bertan Epaimahaiburua eta Idazkaria adieraziko direlarik. Korporazioko Ediktu Taulan argitaratuko da, lanak aurkezteko epea amaitu baino arinago.
- 5.4. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa eman ahal izango dute, Idazkaritza betetzen duenak izan ezik, honek hitzarekin baina botorik ez duelarik.
- 5.5. Deialdi honetan aurreikusi gabe ez dauden gauzetan, urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluko II. Kapituluan elkargo-organoetarako aurreikusitakoari egokituta jardungo du Epaimahaiak
- 5.6. Epaimahaiak hartzailerik gabe utz lezake lehiaketa, kartelek maila tekniko askirik izango ez balute. Hala balitz balio ezaguna aitortuta duen artista edo estudio bati aginduko litzaioke. Azken erabakia 2025eko ekainaren 13a baino lehen hartuko da.
- 5.7. Irabazlea Galdakaokoa balitz epaimahaiak accesit hau udalerriko beste parte-hartzaile bati eman diezaioke bere obraren balio teknikoa edota artistikoa aitortuz. Eta beste horrenbeste irabazlea eta bigarren sariduna Galdakaokoak balira.
- 5.8. Sariak ez dira metatuko.
- 5.9. Kartelaren exekuzio teknikoak tonalitateen edo inprimatu eta zabaltzea errazteko beharrekotzat jotzen diren osaerako beste aspektuen aldaketa behar izango balu hobeto inprimatu ahal izateko, Epaimahaiak aldaera hori





inposa dezake, aurretik egileari kontsultatu eta berak lagunduta.

- 5.10. Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utz ditzake lanak:
 - Autorea nor den zalantzan dagoenean.
 - Pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
 - Beste obra batzuen plagiotzat hartzen dituenak eta plagiotzat jo ez arren beste obra batzuetan inspiratutakoak izanik eta haiekin dituzten berdintasunez epaimahaia jabeturik, originaltasunik ez dutela erabakitzen duenean.
 - Oinarri hauen 3.7. atala betetzen ez dutenak.
 - Oinarri hauen 3.8. atala betetzen ez dutenak.
- 5.11. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Hala ere, epaimahaiak erabakia berriro azter dezake eta baliorik gabe utzi aurreko puntuko gorabeheraren bat gertatzen denean.

Seigarrena.- Sariak emateko prozeduraren ebazpena

6.1. Epaimahaiak Alkate-Udalburuari aurkeztuko dio lehiaketako ebazpenaren behin betiko proposamena. Ebazteko behin betiko proposamena arrazoitu beharko da, eta Epaimahaiaren aktan adierazita agertuko da.

Behin betiko ebazpenaren proposamena, onuradun bezala proposatu diren interesdunei jakinaraziko zaie, 10 egun balioduneko epean ondoko dokumentazioa aurkez dezaten:

- Diru-laguntzen, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan eta Galdakaoko Udalak eta Erakunde Autonomoek diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan agertzen diren diru-laguntzak lortzeko bateraezintasuneko edo debekuzko auzitan sarturik ez izatearen erantzuleaitorpena, erantsitako **A Eranskina**ren ereduaren arabera.
- Hartzekodun-orria, dagokion banketxeak bete behar duena, erantsitako **B Eranskina**ren ereduaren arabera

Hamar eguneko epean, aurreko puntuan eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balitz, interesdunak eskaerarekin atzera egiten duela, aurretik 39/2015 Legearen Lehenengo Tituluko II. Ataleko 21. artikuluan adierazitakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

- 6.2. Ebazpen-proposamenak ez du eskubiderik sortarazten proposatutako onuradunaren alde, Administrazioaren aurrean, emakidatzeko ebazpena jakinarazi ez zaion bitartean.
- 6.3. Lehiaketaren ebazpena Alkate-Udalburuak emango du eta onuradunei indibidualki jakinaraziko die, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluen arabera, eta Udalaren Ediktu Taulan argitaratuko da.
- 6.4. Ebazpena 2025eko zaindari-jaiak hasteko eguna baino lehen emango eta jakinaraziko da. Gehienezko epea ebazpena jakinarazi gabe iragan ondoren, interesdunei egiaztatzen die saria emateko eskabidea ez zaiela onartu uler dezaten.
- 6.5. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio eta berorren aurka urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan araututa dagoen aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakezu, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bi errekurtsoak ezin dira aldi berean aurkeztu.

Zazpigarrena.- Lanen zabalkundea

7.1.- Saritutako lanak Udalaren esku geratuko dira. Era berean, kartel horren gaineko ustiapen-eskubideak ere utzita daudela kontsideratuko dira, erreprodukzio, banaketa eta komunikazio publikoko modalitateetan; hori guztia izaera esklusiboz eta Udalaren alde.







7.2. - Lanak jendaurrean jar daitezke zaintzarik gabe, eta Epaimahaiaren iritziz, espazioko arrazoiak direla-eta, obrek duten kalitate artistikoagatik, Udalak adierazitako lokalean, erakusgarri jartzea merezi dutenak, aukeratzeko ahalmena izango du.

Zortzigarrena.- Lanak jasotzea

Lehiaketan aurkeztu eta saririk jaso ez duten jatorrizko lanak, aipatuko den tokian jaso litezke 2025eko urriaren 6tik urriaren 27ra. Egun hau iragan eta gero, hartu ez diren obrak bere kontu erabili ahal izango ditu Udalak. Udalak ez du bere gain hartuko aurkeztutako materialek garraiatzean, manipulatzean, ikusgai jartzean, biltegian gordetzean edota antzekoetan izan ditzaketen kalteen erantzukizunik. Obren bidalketako eta itzulketako gastuak lehiakidearen kontura izango dira.

Bederatzigarrena.- Oinarrien onarpena

Lehiaketa honetan parte hartzeak berak oinarri guztiak onartu direla inplikatzen du.

Hamargarrena.- Araubide juridikoa

Deialdi honetan espresuki aurreikusi gabeko guztian, Galdakaoko Udalak eta Erakunde Autonomoek Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorra aplikatuko da, diru-laguntza hauen izaera bereziarekin bateragarria denean. Izan ere, Udalbatza Osoak, 2005-06-24ko bilkuran (2005-09-9ko BAOean argitaratu zena) onetsi zuen eta 2007-11-28ko udalbatzak (2008-02-1eko BAOean argitaratu zena) hartutako erabakiz aldatu zen.

Hamaikagarrena.- Beste baldintza batzuk

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, ezartzen duena betetzeko asmoz, parte hartzaileei informatzen zaie euren datuak fitxategi baten sartuko direla Galdakaoko Udaleko Kultura Sailak antolatutako jarduera desberdinei buruzko informazioa bidali ahal izan diezaien. Izan ere, Galdakaoko Udala da fitxategi horren arduraduna eta berorren aurrean bertara jotzeko, zuzentzeko, kentzeko eta aurka egiteko eskubideak egikaritu ahal izango dituzte, Galdakaoko Udalaren Erregistroan idatziz eskatu ondoren.





CONCURSO CARTEL FIESTAS "SANTA CRUZ 2025"

Primero.- Objeto de la Convocatoria.-

Se convoca, en régimen de concurrencia competitiva, el concurso para elegir el cartel anunciador de las Fiestas Patronales "Santakurtzak 2025".

Segundo .- Participantes .-

- 2.1. Podrá optar al concurso toda persona física interesada.
- 2.2. Se establecen 2 modalidades:
 - Modalidad infantil-juvenil: personas nacidas entre los años 2008 y 2017, ambos incluidos
 - Modalidad personas adultas: personas nacidas antes del 1 de enero de 2008.
- 3.3. Podrán tener la condición de beneficiarias las personas físicas que cumplan lo prescrito en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el artículo 12 de la Ordenanza General Reguladora de Subvenciones.

Tercero.- Forma, lugar y plazo de presentación de las obras.-

- 3.1.- Las obras serán entregadas en el Departamento de Cultura, Juventud y Deportes del Ayuntamiento de Galdakao, sito en Lehendakari Agirreren plaza s/n, en horario de 9:00 a 14:00. A la entrega de la obra se expedirá un recibo justificativo con un número de identificación.
- 3.2.- Podrán presentarse un máximo de 2 obras por persona.
- 3.3.- El tema será "Santakurtzak 2025".
- 3.4.- El color y técnica será: libre.
- 3.5.- El tamaño de las obras será de: 50 x 70 cm (no apaisado). Deberá ir montado sobre soporte rígido.
- 3.6.- Los carteles llevarán obligatoriamente el siguiente texto:

"GALDAKAOKO SANTAKURTZAK 2025. Irailak 12-21"

- 3.7.- Las obras o trabajos deberán ser inéditos, no premiados con anterioridad ni presentados simultáneamente a otro concurso o certamen.
- 3.8.- Las obras no podrán ser discriminatorias por razón de sexo, identidad de género u orientación sexual, a tal objeto, en sus textos deberán realizar un uso no sexista del lenguaje y en sus imágenes deberán garantizar una presencia equilibrada de ambos sexos. Asimismo, en ningún caso se admitirán obras que presenten a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, identidad de género u orientación sexual o como meros objetos sexuales, ni aquellas que fomenten los estereotipos de género, así como los que justifiquen, banalicen o inciten a la violencia machista.
- 3.9.- Identificación de las obras: Los trabajos se presentarán bajo lema y sin firma. Y se acompañarán de un sobre cerrado figurando en su exterior el mismo lema de la obra y la fecha de nacimiento del autor o autora. En el interior del sobre deberán incluirse los siguientes documentos:
 - Datos personales (nombre del autor o autora, domicilio y teléfono).
 - Copia del DNI de la autora o autor, o si es menor de catorce años, cualquier otro documento público y oficial que acredite su identidad y fecha de nacimiento.

Este sobre cerrado será abierto por el Jurado una vez emitido el fallo, a fin de conocer la identidad de las personas galardonadas.

3.10.- El Plazo de presentación de la obra, junto al sobre cerrado indicado en el punto anterior, será desde el día 🗉







siguiente de la publicación del extracto de la convocatoria en el boletín oficial de Bizkaia y finalizará el 6 de junio de 2025 a las 14:00h.

3.11. Lugar donde las personas interesadas pueden obtener copia de la presente convocatoria: Departamento de Cultura, Juventud y Deportes (Torrezabal Kultur Etxea, sito en Lehendakari Agirreren plaza, de Galdakao) y en la página web municipal www.galdakao.eux

Cuarto- Premios.-_

Se concederán con cargo a la aplicación presupuestaria 23.3381.480.07 los siguientes premios:

Categoría personas adultas:

- Primer premio 1.000,00 €
- Segundo premio 400,00 €
- Primera persona clasificada del municipio 400,00 €

A estos premios se les descontará el 19% de IRPF.

Se concederán con cargo a la partida 23.3381.226.99 los siguientes premios:

Categoría infantil-juvenil:

- Bono por valor de 100€ para gastar en un comercio del municipio, para cada una de las siguientes secciones:
- Personas nacidas entre los años 2015 y 2017, ambos incluidos
- Personas nacidas entre los años 2011 y 2014, ambos incluidos
- Personas nacidas entre los años 2008 y 2010, ambos incluidos

Quinto.- Jurado.-

- 5.1. El fallo del concurso corresponderá a un Jurado que estará constituido por cinco miembros, excluida la persona que ocupe la secretaría, de los/as cuales la presidencia estará ocupada por la representación municipal, y las o los vocales, que serán dos personas integrantes de la comisión de fiestas, una persona representante del colectivo de artistas del municipio y una persona profesional del campo del diseño, la comunicación y las artes plásticas. El/la Secretario/a será un funcionario/a municipal.
- 5.2. En la selección de las personas miembros del Jurado se garantizará una representación equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. A los efectos de lo señalado, se considera que existe una representación equilibrada cuando en los tribunales, jurados u órganos afines de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40%. En el resto, cuando los dos sexos estén representados.
- 5.3. El nombramiento de los y las miembros del Jurado se efectuará mediante Decreto de la Alcaldía, en el que se indicará también quién ocupará la Presidencia y la Secretaría, y será publicado en el Tablón de Edictos de la Corporación en fecha anterior a la de finalización del plazo de presentación de las obras.
- 5.4. Todas las personas del Jurado tendrán voz y voto, menos el o la que ocupa la Secretaría, que tendrá voz pero no voto.
- 5.5. En lo no previsto en la presente convocatoria, el Jurado ajustará su actuación a lo previsto para los órganos colegiados en la Sección III del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público.







- 5.6.- El jurado podrá declarar desierto el concurso en caso de que los carteles no tuvieran el suficiente nivel técnico, en cuyo supuesto podrá ser encargado a un artista o estudio de reconocida valía. La decisión se tomará antes del 13 de junio de 2025.
- 5.7. En caso de que la persona o personas ganadoras del primer y/o segundo premio sean de Galdakao, el jurado podrá otorgar el accésit a otra persona participante del municipio en reconocimiento a los valores técnicos y/o artísticos de su obra.
- 5.8. Los premios no podrán ser acumulativos.
- 5.9.- Si la ejecución técnica del cartel requiriese alguna modificación de las tonalidades u otros aspectos de composición que se consideren necesarios y que faciliten su posterior impresión y difusión, el Jurado podrá imponer dicha variación, previa consulta y en colaboración con su autora o autor.
- 5.10.- El jurado podrá descalificar, en cualquier momento en el proceso de selección, todos aquellos trabajos en los que concurra alguna de las siguientes circunstancias:
 - Los de autoría dudosa.
 - Los que atenten contra la dignidad de las personas.
 - Los que considere que constituyan plagio de otras obras y los que sin poder considerarse como tal supongan una imitación, estén inspirados en otras obras o coincidan con ellas de tal forma que, una vez conocidas por el jurado tales circunstancias, le den motivo a decidir que les faltan méritos de originalidad.
 - Los que incumplan el apartado 3.7. de estas Bases.
 - Los que incumplan el apartado 3.8. de estas Bases.
- 5.11.- El fallo del jurado será inapelable. No obstante, el jurado podrá revisar y anular el fallo si considerara que concurre alguna de las circunstancias previstas en el párrafo anterior.

Sexto.-Resolución del procedimiento para la concesión de los premios.-

6.1. El Jurado elevará a la Alcaldía-Presidencia, la propuesta definitiva de la resolución del concurso. La propuesta definitiva de resolución se efectuará de forma motivada, y constara en acta del Jurado.

La propuesta de resolución definitiva se notificará a las personas interesadas que hayan sido propuestas como beneficiarias, para que en el plazo de 10 días hábiles aporten la siguiente documentación:

- Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las causas de incompatibilidad o prohibición para obtener las subvenciones que figuran en el artículo 13.2 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el artículo 12 de la ordenanza General Reguladora de subvenciones por el ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos autónomos, conforme el modelo que se adjunta como **Anexo A**.
- Hoja de acreedor/a, a cumplimentar por la entidad bancaria correspondiente. Anexo B.

Si no se aportara en el plazo de diez días la documentación requerida en el punto anterior, se entenderá que el/la interesado/a desiste de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos del Artículo 21 del Capítulo I del Título II de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

- 6.2. La propuesta de resolución no crea derecho alguno a favor del/la beneficiario/a propuesto/a, frente a la Administración, mientras no se le haya notificado la resolución de concesión.
- 6.3. La resolución del concurso se dictará por la Alcaldía-Presidencia y notificará individualmente a las personas beneficiarias, de acuerdo al artículo 40 del Capítulo II del Título II de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y se publicará en el Tablón de Edictos de la Corporación.
- 6.4. La resolución se dictará y notificará en un plazo anterior a la fecha de inicio de las fiestas patronales de 2025. Transcurrido el plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legitima a los/as interesados/as para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión del premio.







6.5. La resolución pone fin a la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición regulado en los artículos123 y 124 de la Sección III del Capítulo II del Título V de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o directamente recurso contencioso-administrativo en los términos previstos en el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, no pudiéndose simultanear ambos recursos.

Séptimo.-Difusión de las obras.-

- 7.1.- Los trabajos premiados quedarán en poder del Ayuntamiento considerándose además cedidos por el autor o autora los derechos de explotación sobre dicho cartel en las modalidades de reproducción, distribución y comunicación públicas; todo ello con carácter exclusivo y a favor del Ayuntamiento.
- 7.2. Las obras presentadas podrán ser expuestas al público sin custodia, reservándose el Jurado la facultad de designar, por razones de espacio, las que a su juicio merecieran ser expuestas, por su calidad artística, en el local oportunamente señalado por el Ayuntamiento.

Octavo.-Retirada de las obras.-

Los originales presentados al concurso no premiados podrán ser recogidos en el lugar que se indique del 6 de octubre al 27 de octubre de 2025. Transcurrida esta fecha, el Ayuntamiento podrá disponer libremente de las obras no retiradas. El Ayuntamiento no se hará responsable de los extravíos o daños que puedan recibir los materiales entregados como consecuencia de su transporte, manipulación, exposición, almacenaje o similar. Los gastos de envío y devolución de las obras serán por cuenta de la persona concursante.

Noveno.- Aceptación de las bases.-

El hecho de participar en el presente concurso implica la aceptación total de sus condiciones.

Décimo.-Régimen jurídico.-

En todo lo no previsto expresamente en esta convocatoria, será de aplicación la Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos, aprobada por el Avuntamiento Pleno es sesión de 24-06-2005 (publicada en el B.O.B. de 9-09-2005) y modificada por acuerdo plenario de 28-11-2007 (publicada en el B.O.B. de 1-02-2008), en lo que resulte compatible con la especial naturaleza de estas subvenciones.

Decimoprimero. - Otras condiciones. -

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, se informa a las personas participantes que sus datos se incluirán en un fichero con la finalidad de remitir información sobre las distintas actividades organizadas por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Galdakao. El responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Galdakao, ante el cual podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición solicitándolo por escrito en el Registro del Ayuntamiento de Galdakao.

